

**ANOETAKO UDALAREN ETA BILDO 5 ELKARTE KOOPERATIBAREN ARTEKO ONDASUN TRUKAKETA DELA ETA, 2005EKO IRAILAREN 29KO UDALBATZARREAN ONARTU BEHARREKO BI PUNTUETARAKO PROPOSATUTAKO IDATZIA.**

**1.- BALDINTZA ADMINISTRATIBO ETA EKONOMIKOEN AGIRIAREN ALDAKETA ( MODIFICACION DE PLIEGO DE CONDICIONES ECONÓMICO ADMINISTRATIVAS).**

- 2003ko maiatzaren 9an egindako ezohizko udal-batzarrean, sustapen pribatuko babes ofizialeko 58 etxebizitza eta salmenta libreko 24 garaje eraikitzeke, Anoetako Arau Subsidiarioetako Iturtxulo izeneko 19. eremuan Anoetako Udalaren jabetzako orube bat lehiaketa bidez besterentzea zuzendu behar zuten baldintza ekonomiko eta administratiboak biltzen zituen agiria onartu zen.
- 2005eko urtarrilaren 10eko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako ebazpenaren bidez Anoetako Iturtxulo eremuan eraiki behar diren Babes Ofizialeko Etxebizitzen behin-behineko kalifikazioa lortu zen.  
Beharrezkoa den Kalifikazio hau lortu ahal izateko, hau da, proiektua hirigintza arautegira egokitu eta eraiki beharrekoak diren etxebizitzak Babes Ofizialeko Etxebizitza kalifikazioa lortu ahal izateko, hasierako proiektuan zenbait aldaketa burutzea ezin bestekoa izan zen, besteak beste salmenta libreko garajeen kopuruari dagokionez, eta arrazoi honegatik, salmenta libreko garajeen kopurua 24 izatetik 17 izatera pasako da. Hau da, Anoetako Udalak Bildo 5 Elkarte Kooperatibaren alde lurzorua besterentzearen truke jasoko duen salmenta librerako garaje kopurua 24 izatetik 17 izatera pasako litzateke.
- 24 garajetik 17 garajerako aldaketak aldiz, ez du suposatzen metro karratuan inolako aldaketarik, izan ere, garaje kopurua aldatzen bada ere, metro karratu kopurua edo azalera hasierako berdina izaten jarraitzen baitu. Aldaketa bakarra beraz, azalera berdinean garaje kopuru gutxiago eraikitzean datza. Ondorioz, Anoetako Udalak azalera berdina jasoko du 17 garajeen bitartez. Gainera, salmenta librean metro karratuaren balioa berdina izaten jarraitzen du hasierako proiektuan eta azken proiektuan. Hala zehazten du Raimundo Mendiburu Abad arkitektoak 2004ko abenduaren 10eko eta 2005eko abuztuaren 5eko bi txostenetan.
- Guztia kontutan harturik, gaurko udalbatzan, sustapen pribatuko babes ofizialeko 58 etxebizitza eta salmenta libreko 24 garaje eraikitzeke, Anoetako Arau Subsidiarioetako Iturtxulo izeneko 19. eremuan Anoetako Udalaren jabetzako orube bat lehiaketa bidez besterentzea zuzendu behar zuten baldintza ekonomiko eta administratiboak biltzen zituen agirian honako aldaketa egitea

**proposatzen da: salmenta libreko garaje kopurua 24 izatetik 17 izatera pasatzea.**

## **2.- BALDINTZA ADMINISTRATIBO ETA EKONOMIKOEN AGIRIAREN EDUKIA ESKRITURA PUBLIKOAN JASOTZEA.**

Baldintza Administratibo eta ekonomikoen agiriaren 4. puntua jarraituz, jabego ezberdinen besterentzea gauzatu ahal izateko beharrezkoa da eskritura publikoan jasotzea Baldintza Administratibo eta Ekonomikoen Agiriaren edukia; ondorioz, kontutan hartuz horretarako hainbat dokumentu eta eskritura sinatu beharko direla, **Anoetako Alkatea den Fidel Azpiroz Arrillagari gai honen inguruko tramite guztiak bete arazteko eta aurrera eramateko beharrezkoa den boterea ematea proposatzen da.**

Anoeta, 2005eko irailaren 29a.

Garikoitz Lekuona Izeta  
Administrazio Bereziko Teknikaria

**OHARRA:** Goian aipatutako bi puntuen onarpenerako prestatutako proposamen idatzi hau Jokin Izagirre udal abokatu aholkulariak zehazturiko irizpideei jarraituz idatzi da.